

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO URTARRILA


## Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %9,1eko hazkunde-tasa izan du 2006ko urtarrilean

**Aurreko hilabetearen aldean (2005eko abendua), hazkundera %0,8koa izan da**

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko hil beraren aldean %9,1 hazi da 2006ko urtarrilean. Industri produkzioaren urte arteko portaera horretan lagundu dute energiaren sektoreko jarduera berrien sustapenak eta ekipamenduko ondasunen ekarpen garrantzitsuak.

2006ko urtarrilean, eta 2005eko abenduaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %0,8 hazi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean. Aurreko urteko abenduan hil arteko tasa hori ere %0,8 hazi zen eta, beraz, urteko lehenengo hilabetea hil arteko bilakaerak aurreko urteko abenduko suspertzearekin jarraitu du.

### Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea



(\*) 2006ko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

### Sektoreen arabeko bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2006ko urtarrileko indizearen bilakaera hazi egin da sektore guztietan, 2005eko abenduaren aldean: energia (%26,0), ekipamenduko ondasunak (%14,8), tarteko ondasunak (%4,5) eta kontsumo-ondasunak (%1,6). Azken hauetan bi atal bereiz daitezke: kontsumo-ondasun iraunkorrak, urte arteko %7,5eko hazkundera izan dutenak, eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak, %1,3ko beherapena izan dutenak.

2005eko abenduaren aldean, 2006ko urtarrilean hil arteko aldaketak positiboak izan dira energiaren (%3,8), ekipamenduko ondasunen (%3,7) eta tarteko ondasunen (%0,8) sektore nagusietan; aitzitik, 2005eko abenduaren aldean betiere, kontsumo-ondasunek %2,6 egin dute behera. Kontsumo-ondasunen osagaien artean, kontsumo ondasun iraunkorrek %1,0eko hil arteko hazkundea izan dute baina kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %4,4 egin dute behera, aurreko urteko abenduarekin erkatuta.

### Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira sektore guztietan; izan ere, Bizkaian %10,1 hazi da, Araban %9,3 eta Gipuzkoan %7,8.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2006ko urtarrilekoak, 2005eko abenduaren aldean) bilakaera ezberdinak eman dira aipatu aldian: Bizkaian eta Gipuzkoan tasa hori hil artean %1,3 hazi da baina Araban %0,8 egin du behera.

**Taula: 2006KO URTARRILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	urt06/urt05	At/At-1 (1)	urt06/abe05	abe05/aza05
<b>Indize orokorra: Euskal AE</b>	9,1	9,1	0,8	0,8
Araba	9,3	9,3	-0,8	-1,1
Bizkaia	10,1	10,1	1,3	2,0
Gipuzkoa	7,8	7,8	1,3	0,5
<b>Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE</b>				
Kontsumo-ondasunak	1,6	1,6	-2,6	1,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	7,5	7,5	1,0	0,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,3	-1,3	-4,4	1,6
Ekipo-ondasunak	14,8	14,8	3,7	-3,4
Bitarteko ondasunak	4,5	4,5	0,8	0,8
Energia	26,0	26,0	3,8	6,2

(1) t urteko urtarriletik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

**Iturria: Eustat**

### Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)